



Marino Ugaites iratze
parisko arafu
nagusia leporatze
bete zen ekitaldian.
© NURBE ARGAZKI PRESS

na. Deiak izan ziren, ezkutuko mugimenduak, eta guardia zibilak ez ziren Arantzazura heldu.

Jomagan egote hari euskalgintzak nola erantzun zion, arranguraz mintzatu zen Uria atzo: esparru osoa zegoela jomagan, baina ez zela horren neurrian erantzun. «Euskalgintzaren kongresu moduko bat antolatzea proposatu genuen». Uste zuten euskararen eta Euskal Herriaren aurkako eraso zela, ez bakarrik *Egunkaria*-ren kontrako. «Euskalgintzak, zati-tuta, ez zuten kongresu hori egin».

Ezpalak

Guardia Zibilak enbor-enborrean jotako kolpeari erantzun sendoa eman zituela goraiatu zuten Torrealdaik eta Zabalondok. Kolpe hark ezpalak atera zituela enborretik. Donostiako manifestazio handia gogoratu zuten, adibidez. «Minduta eta haserre zegoen jendea bai baitzekien *Egunkaria* joz euskalgintzaren bihotza joko zutela: euskalgintza soziala». Itxieraren biharamunean bertan *Egunero* atera izana ere goraiatu zuten, eta BERRIA sortu izana. «Baldintza horietan ausardia behar da gero Poliziaren eta botere judizialaren mehatxuen gainetik periodiko berria atera nahi izateko». Martxelo Otamendi zuzen-

dariak ere nabarmendu zuen *Egunkaria*-ko langileen jokabide hori, haien «pasta berezia». Ez-pal irmoko jarrera erakutsi izana.

Euskalgintzaren eremuan indarra galtzen ari ote den, kezka hori erakutsi zuen Uriak: «Merkatuak ez dio eusten euskarazko komunikabideen biziraupenari, diru laguntzak ez dira tamainan iristen, eta gizartea aldatu egin zaigu, herri ekimena ez da lehen-goia. Euskalgintzak, ez instituzionalak ez eta herritarak, ez du nahiko indar biltzen euskararen egoera nabarmen aldatzea lortzeko». Eta behar du: «Ideia berriak eta egitasmo berriak behar ditugu».

Egunkaria itxi zuteneko urteurrena garai berezian iritsi da. Egitasmo bat abian du BERRIAk, etorkizuna ziurtatzeko, *Geroa Zuzan* lelopean. Herritarrei eta erakundeei dei egin diete, BERRIA babesteko. Torrealdaik eta Zabalondok ezinbesteko jo dute jarduteko eredu hori: «Komunitatearen parte hartzea, herri ekimenaren formula ez dira iraganekoak, ez daude kadukatuta. Globalizazioaren garai honetan inoiz baino beharrezkoagoa izango da hizkuntza komunitatea bere lanabes eta tresnen jabe, arduradun eta kudeatzaile izatea». Ezpalez ez-pal, alez ale, katebegiak osatzea.

ADIERAZPENA

Katea ez da eten: 'Egunkaria'-tik BERRIARA

Zenbat urte ditu BERRIAK? Zenbat urte, *Egunkaria*-k? *Egunkaria*-k 13, eta BERRIAK 15? Ala, 28? Horixe: 28 urte ditu *Egunkaria*-k, 28 urte ditu BERRIAK.

Egunkaria Sortzen-etik BERRIA sortzeko bidea egin zen 2003an. Katea ez da eten.

Hori esan ahal izatea gauza handia da, hori horrela gertatu izana epopeia da. Herriak dinamizatua eta gizarte zibillak aktibatua behar izan du, *Egunkaria*-ren heriotzari BERRIAREN jaiotzarekin hain hilabete gutxitan erantzun ahal izateko.

Egunkaria itxia bai baina ez isildua, aldarrikatu zuten langileek. *Egunkaria* itxia bai baina ez hila, diogu guk, BERRIAN bizi baita berriro *Egunkaria*.

Duela 28 urte sortu zen *Euskaldunon Egunkaria*. «Ezina, egi-na» esaldian laburbiltzen dugu aldi hura.

Jende askok uste zuten ez zegoela baldintza objektiborik, bideragarritasunik. Ezinezkoa edo arriskutsua zela *egunkari* bat kalerratzea. Eta porrot eginez gero, batzuen ustez seguru zena, kalte neurtezina ekar diezaiokoela euskarari, luzarorako.

Dena zegoen alrean: Hiru dilema handitan bildu daitezke:

– Bat: Zeini zegokion euskarazko *egunkaria* sortzea: Eusko Jaurlaritzari? Erdarazko *egunkari*ei? Ba, *Egunkaria* Sortzen-ek hartu zuten bere gain erantzukizuna.

– Bi: Zer enpresa: *Egunkaria*-ren tamainako apustuari heltzeko ez zegoen enpresarik, ezta enpresa-kulturarik ere euskalgintzan. Ba, *Egunkaria* Sortzen-ek sortu zituen bai *Egunkaria* Sortzen SL, eta bai *Egunkaria* SA.

– Hiru: Goizegi omen zen, ez zegoelako aski irakurlerik, aski publikizaterik, aski kazetaririk.

Euskara bera ere ez zegoen trebatua, aski landua, ez zen malgua. Ba, 75 lagun bildu ziren *Egunkaria* Sortzen-en, eta *egunkaria* kalerratzeko ordua zela erabaki zuten.

1990ean gauzatu zen egitasmo hura, ilusio goien hura, 12 urtez bere balioa frogatu zuena: hura bera, 12 urte geroago, enpresasorta emankorra da, 140 langile, 50 mila irakurle, osasun oneko



Torrealdai eta Zabalondo, atzo, adierazpena irakurtzen. © NURBE ARGAZKI PRESS

enpresa. Eta bat-batean, ez kazetaririk, ez irakurlerik, ez enpresarik. Urte askotan gauzatu genuen lana, bat-batean birrindua. Ametsa, amesgaizto bihurtu ziguten 2003ko otsailaren 20an. Nork agintzen duen herri honetan erakutsi nahi izan zuten.

Hoberenean zegoenean itxi zuten *egunkaria*.

Zorigaitzoko gaua edo eguna otsailaren 20ko hura, duela 15 urte: sarraskia, izua, tratu txarrak, zuzendaritza atxilotua, etxe eta bulego miaketak, enpresen itxiera.

Egunkaria-ren itxierak izua zabaldu zuen bazterretan. Izu beltza.

Izuarri aurre eginez, *Egunkaria*-ren itxierari eman zitzaion erantzuna guztiz eredugarria izan zen. Itxia baitzen, baina ez hila. Hiru puntu azpimarratu behar ditugu, ataka hartan:

– Batetik, sekulako manifestazioa. Minduta eta haserre zegoen jendea, bai baitzekiten *Egunkaria* joz euskalgintzaren bihotza joko zutela: euskalgintza soziala.

– Bestetik, *Egunero* periodikoa, biharamonik gabe abiatua: *egunkari*aren paraderoa kontatuz, *egunkari*-komunitatea trinkotu eta informaturik mantendu zue-na. Sekulako tresna.

– Eta BERRIA sortzen. BERRIA Sortzen-eko taldekideek eta *egunkari* berriaren karguek Damoklesen ezpata bailltzen kartzela zuten buru gainean. Ez da figura literario bat, arrisku bizia baizik.

Baldintza horietan ausardia behar da gero, Poliziaren eta botere judizialaren mehatxuen gainetik, periodiko berria atera nahi izateko, *crowdfunding* sistema baliatu dirua lortzeko, zuzendaritza berria eta ekipo berriak osatu, konplizitate josi, enpresa egitura eta azpiegiturak sortu eta indarrean jarri, euskalgintza herriz herri, auzoz auzo, taldez talde mobilizatu.

Egunkaria-tik BERRIARA katea ez da eten. Bietan hizkuntza-komunitatearen ekimena izan baita sakoneko lotura. Herri ekimenik gabe *Egunkaria*-k ez zuten aurrera egingo. Gizarte zibil antolaturik gabe BERRIA ez zen sortuko eta ez zuten aurrera egingo. Bietan, hizkuntza-komunitateak bere gain hartu zuen erantzukizuna.

Komunitatearen parte hartzea, herri ekimenaren formula ez dira iraganekoak, ez daude kadukatuta. Globalizazioaren garai honetan inoiz baino beharrezkoagoa izango da hizkuntza-komunitatea bere lanabes eta tresnen jabe, arduradun eta kudeatzaile izatea.

Hizkuntza, eskola, *egunkaria*... tresna ezinbestekoak ditugu etorkizunari begira segitzeko, iragan-a ahaztu gabe geroaz jabetzeko.

Jabe gaitzeen geure buruaz geroan. Gugan da geroa. *Geroa* zuzen.

Beatriz Zabalondo, BERRIA Taldeko lehendakaria
Joan Mari Torrealda, *Euskaldunon Egunkaria*-ko lehendakaria